

# "Berbeteari gatza eta piperra"

*Hi haz  
artaburue !!*



BUSTURIALDEKO HIZKUNTZ NORMALKUNTZA

"Berbeteari  
gatza eta piperra"

BUSTURIALDEKO HIZKUNTZ NORMALKUNTZA

**EGILEAK:**

*Eukene Arrien (San Fidel Ikastola)*

*Yolanda Elorriaga (Gernika BHI)*

*Maribi Galarza (Arozena-Barrueta BHI)*

*Pedro Mari Gezuraga (Barrutialde BHI)*

*Nerea Jaio (B10 Berritzegunea)*

*Jon Andoni Uriarte (Seber Altube Ikastola)*

*Edurne Zabala (Gernika BHI)*

**IRUDIAK:** *Mikel Egia*

**DISEINUA:** *Pedro Mari Gezuraga*

1. edizioa: 2002

Lege gordailua: BI-1580-02

Bada mende bete Mariano Mendigatxak zera idatzi ziola Azkue handiari: "En la riña de nuestro bascuence no hay mecagos, solo ojalas; no se toca a los santos ni a la Virgen, solo hay maldiciones de muerte y otros males, que por ser tan horrorosos no me atrevo a ponerle". Erronkariko Uskara mapa munditik desagertu egin da; hala ere oso dialekto ikertua dugu: gramatikak eta hiztegiak badauzkagu, garai hobeagotan berpiztu nahi baldin bagenu. Aise gutiago zeukaten Israelen, juduera berreskuratzen hasi zireneko, adibidez. Baina hutsune nabaria utzi digute Mendigatxak eta beste guztiek, inork ez baitizkigu irain eta madarikazio haiek bildu. Eta non dira Hizkuntzaren gatza eta piperra? Betirako galduak ote?

Busturialdeko jendeek ez diote Iraganari begiratu behar izan irain bilketa eder hau gauzatzeko; Orainari diote behatzen, eta hala eginez, Geroa bermatzen diote Hizkuntzari. Erakargarria, sortzailea, indartsua agertu baitzaigu Euskara orri hauetan.

Adibidea eredugarri izango ahal da beste eskualdetarako... bai eta denon arteko Batuaren aberasgarri ere!

Euskara ez zela iraintzeko gauza zioen Nobel saridun hura hilik dago, eta sortu berri den honako lan honek zera egiaztatzen digu: Egundaino argitaratuak ez izanagatik, euki, badauzkagu. Balia ditzagun!

**ASISKO URMENETA**

**GERNIKA-LUMOKO**

UDALA

**BERMEOKO**

UDALA

## SARRERA

Eskuetan daukazun lantxu honen helburua ez da inor iraintzea, ez horixe. Osterantzeko asmo jatorragoa gogoan izanda egin dogu gure eskualdeko irainen batze-behar hau. Gure gaur egungo gazteen berbetea ez da helduok darabilgun ereduaren bardina, antzekoa bez askotan. Egia da gazteak euskera gehiago egiten dabela orain urte batzuk baino eta horrexegaitik, hain zuzen be, gertatzen da aldaketa. Erabiltzen ez dana, dan moduan gorde lei baina erabiltzen dan edo-zer moldatu egiten da, itxuraldatu. Eta horixe bera jazo jako gazteen berbeteari: aldatu egin da. Eguneroko beharrizanei erantzun beharrak eragiten dau hau guztiau. Maitasuna, gorrotoa, haserrea, poza, lotsa..., zer ez ete dogu adiazoten hizkuntzaren bidez? Eta holako zeozer geurea dan hizkuntzan azaldu ezin izango bagendu, agur.

Edozein berbeta-klasek bizitasuna behar dau eta gazteenak oraindik gehiago. Hizkuntzak erabilgarria izan behar dau; edozein sentimentu di-da batean agertzeko dohaina behar dau. Horixe da gazteak eskatzen deutesena: funtzionala izatea.

Baina, askotan, gehiegitan gure eritxiz, funtzionaltasun horren izenean gaztelerara jotzen dabe gure gazteak. Lagun bat zikina dala adiazoteko "guarro" edo "puerko" esaten dabe euskera jatorra daukien gazteak be. Orain dala urte batzuk "txarritto" esango gendun seguru asko.

Bueltatu gaitzen, ba, hasieran esandakora, lan honen helburura hain zuzen. Gure xedea ez da berba motzen hiztegi antzerako bat egitea, gazteak eguneroko hitz-jardunean galtzeko arriskuan dagozan eta behar-beharrezko dabezan berbak batzea eta ezagutu eragitea baino. Ez dogu gura jentea alkar iraintzen ibiltzerik baina hori gerta-

tu egingo da; orain arte gertatu izan da, gertatzen da eta, egon seguru, gertatu egingo da. Horrexegatik egin dogu ahalegin hau: eskualdeko irainak berreskuratzeke eta euren erabilera gazteen artean indartzeko.

Beste edozer baino gehiago didaktikotasuna bilatu dogu eta ikusiko dozunez, erraz ulertzeko moduko sailkapena egin dogu. Askotan, irainak irudiz lagunduta datoz atseginagoa izatetik aparte ulertzeko lagungarri be izan lei-eta.

Irain bakotxaren sartukera egiterakoan hiru atal izango dira: lehenengo, iraina bera agertuko da baina gaur egungo arau ortografikoak gogoan izanda idatzirik; ostean, eskualdeko ahoskera erakusten dauan grafian idatzita, eta azkenik, irainaren ganeko azalpena. Transkripzioak egiterakoan modu berezia erabili dogu, beti be erraztasuna eta didaktikotasunaren izenean. Mendebalde osoan "z" ahoskatzen ez dogula jakinda be, "z" eta "s" biak idatzi izan doguz, iraina zelan ahoskatzen dan jakiteko arazorik sortzen ez daualako eta ganera jentea holan idatzita ikusten ohituta dagoelako. Bardin-bardin egin dogu "ts" eta "tz" fonemakaz be, jakinda lehenengo ez dogula hemen ahoskatzen. Fonema sabaikariei jagokienez, "ll", "ñ" eta "tt" erabili dira eta berba amaierako "i+a" fenomenoaren ondorioz sortzen den kontsonante sabai-aurreko berezia "dx" grafiagaz transkribidu dogu, "herridxe", "ogidxe"... berbatan agertzen dana, hain zuzen be. Beste batzutan, gure eskualdean bertan ahoskera diferenteak dagozanean, forma biak emon doguz. Esate baterako "apoa" eta "apue".

Eta beste barik, gozatu eta ikasi.

*BUSTURIALDEKO IKASTEETXETAKO  
HIZKUNTZ NORMALKUNTZA TEKNIKARIAK*

## **AURKIBIDEA**

### **1. ITXURARAZKO EZAUGARRIAK:**

1.1. Pertsona zaharkituaren itxura edota pentsamoldea adierazteko . . . . .	8
1.2. Pertsona zikina danean . . . . .	10
1.3. Mugimendu gitxiko jendeari . . . . .	16
1.4. Elementu fisiko bat nabarmentzen jakonean . . . . .	20
1.5. Animalien ezaugarriak adierazteko . . . . .	30

### **2. IZAERAZKO EZAUGARRIAK:**

2.1. Adimen gitxiko pertsonari . . . . .	34
2.2. Ganorabakoari . . . . .	40
2.3. Sexuarekikoak . . . . .	46
2.4. Gaiztokeria desbardinaren jabe direnei . . . . .	50
2.5. Alferra edo ardurarik hartzen ez dauanari . . . . .	56
2.6. Barritsuari . . . . .	58
2.7. Pertsona onegia danean . . . . .	60
2.8. Indarraren ingurukoak. . . . .	62
2.9. Bere burua gehiagotzat daukana . . . . .	64
2.10. Zirikatzaile, pazientzibako edo ezin dana geldi egon . . . . .	66
2.11. Bere jokabideagatik nabarmentzen danari . . . . .	70
2.12. Burugogorkeria adierazteko . . . . .	72
2.13. Baliorik ez daukan pertsonari . . . . .	72
2.14. Gauzak egiten arteza ez danari . . . . .	74
2.15. Beste batzuk . . . . .	74

# 1. ITXURAZKO EZAUGARRIAK

## 1.1. PERTSONA ZAHARKITUAREN ITXURA EDOTA PENTSAMOLDEA ADIERAZTEKO:

**Agure makuleto:**  
**(agure makuletoa!)**  
*Aguretu eta kakotua*

**Agure txatxu:**  
**(agure txatxue!)**  
*Zahartu eta tximurtua*

**Aintzineko:**  
**(añtxiñekoa!, añtxiñekue!)**  
*Lege zaharrekoa*

**Antigualeko:**  
**(antigualekoa!, antigualekue!)**  
*Antzinako, modaz pasatakoa*

**Atso madarikatu:**  
**(atso madariketue!)**  
*Andre zahartu eta gaiztoa*

**Atso tronpeta:**  
**(atso tronpetie!)**  
*Atso zaratatsua*

**Atso zahar:**  
**(atsozarra!)**  
*Andre zahartua*



## 1.2. PERTSONA ZIKINA DANEA:

### **Antojugarri:**

**(antojugarridxe!)**

*Higuingarri, enpagugarria*

### **Apo:**

**(apoa!, apue!)**

*Motza eta zikina*

### **Babazto:**

**(babastoa!, babastue!)**

*Adurra dariola berbetan dauana*

### **Enpagugarri:**

**(enpagugarridxe!)**

*Higuingarria*

### **Kitano antza, kitana antza:**

**(Kittanoantza! Kittanantza!)**

*Ugerrez beterik dabilena*

### **Koipelustre:**

**(koipelustrie!)**

*Fardel, narras eta zikina*

### **Koipezto:**

**(koipezto!, koipeztoori!)**

*Ugerdo zikina*

### **Lazki:**

**(lazkidxe!)**

*Zikina*

*Txarritto  
koipezto  
zikiñe !!*

*Egon zaittez  
ixilik !!!  
Intzenplatu  
bañepaluari !!*



**Lorriñ:**

**(lorriñe!)**

*Gauzak trakets eta zikin egiten dituena*

**Mantar:**

**(mantarra!)**

*Zarpail, trauskila*

**Mokoti:**

**(mokotidxe!)**

*Mokoa dariola dabilena*

**Saskil:**

**(saskille!)**

*Saskel, zikin, narrasa*

**Saskilon, saskilona:**

**(Saskillon! Saskillona!)**

*Saskel handia*

**Saskilontzo, saskilontza:**

**(saskilontzoa!, saskilontzie!)**

*Saskel handia*

**Treuskil:**

**(treuskille!)**

*zakar, zarpaila*

**Txarri:**

**(txarridxe!)**

*Zikin, lizuna*

**Txarritto:**

**(txarrittoa!)**

*Ugerdo, zikina*





**Treuskilontzo, treuskilontza:**  
**(treuskillontztoa!, treuskillontzie!)**

*Zarpail, handia*

**Uger:**  
**(ugerra!)**

*Lohia, zikina*

**Ugerdo/ ugerda:**  
**(ugerdue!, ugerdoa!, ugerdie!)**

*Ugerrez betea, zikina*

**Ulenpo:**  
**(ulenpoa!, ulenpue!)**

*Ulea txukundu barik.*

**Ulezto:**  
**(uleztoa!, ulezdue!)**

*Zapaztoa*

**Uzkerti:**  
**(uzkertidxe!)**

*Uzkerrak botatzen dituen*

**Zapazto:**  
**(zapaztoa!, zapazdue!)**

*Ulezto*

**Zatar:**  
**(zatarra!)**

*Lizun, lohi, zantarra*

**Zaztar:**  
**(Zaztarra!)**

*Zikina*





### 1.3. MUGIMENDU GITXIKO JENDEA

**Dandarrez dabilena:**

**(dandarrez dabilena!)**

*Ibili ezinik dabilena, alferra*

**Gantzopil:**

**(gantzopille!)**

*Odolbakoa*

**Gerizpetako idielako:**

**(gerizpetako idielakoa!, idielakue!)**

*mugimendurik bakoa*

**Keto:**

**(ketoa!, ketue!)**

*Kikil, txepela*

**Kikil:**

**(kikille!)**

*Ez daukana mugitzeko adorerik*

**Lebatz:**

**(lebatza!)**

*leloa, papaua*

**Lorito:**

**(loritoa!, loritue!)**

*Mugimendubakoa*

**Nagi:**

**(nagidxe!)**

*Alfer, gibelandia*



**Narrear antzean dabilena:**  
**(narran antzien dabilena!)**

*Arrastaka dabilena*

**Odolbako:**  
**(odolbakoa!, odolbakue!)**

*Bizirik bakoa*

**Pepelontzo, pepelontza:**  
**(pepelontzoa!, pepelontzie!)**

*Memelo, lerdoa*

**Tartera zahar:**  
**(tartera zarra!)**

*Mugimendu gutxikoa*

**Tentel:**  
**(tentela!)**

*Kokolo, memeloa*

**Trentinbako:**  
**(trentinbakoa!, trentinbakue!)**

*Geldoa*

**Ustel:**  
**(ustela!)**

*Alfer handia*



#### 1.4. ELEMENTU FISIKOREN BAT NABARMENTZEN JAKONEAN:

##### **Bainepalu:**

**(bainepalue!)**

*Handia, argala eta luzea*

##### **Baldur:**

**(baldurre!)**

*Handi-handia eta ibilera traketsa dauana*

##### **Baragarri:**

**(baragarridxe!)**

*Itxura txar desegokia eta komikoa dauana*

##### **Begioker:**

**(begiokerra!)**

*Begi okerrak dituena*

##### **Belarrihandi:**

**(belarriandidxe!)**

*Belarri handi-handiak dituena*

##### **Beterre:**

**(beterrie!)**

*Begi errea*

##### **Bizerdo:**

**(bixerdoa!, bixerdue!)**

*Bizarra kendu barik ibiltzen dana*

##### **Bizertona:**

**(bixertonie!)**

*Ule aso dauan andrea*



**Burduntzipalu:**  
**(burduntzipalue!)**

*Mehe eta luzea*

**Buruhandi:**  
**(buruandidxe!)**

*Buru handi-handia dauana*

**Eperdihandi:**  
**(eperdihandidxe!)**

*Epurdi masaila handiak dituena*

**Eperdisakuto:**  
**(eperdisakutoa!, eperdisakutue!)**

*Eperditsua*

**Eperditxikola:**  
**(eperditxikola!)**

*Eperdi gauzeztana dauana*

**Epo:**  
**(epoa!, epue!)**

*Txiki ezereza*

**Erre:**  
**(errie!)**

*Gauzeztana*

**Gauzeztan:**  
**(geuzeztana!)**

*Txikia. Ez dauana ezertarako balio*

**Ginbeleta:**  
**(ginbeleta!)**

*Argal tipo barragarria*

*Hori bai  
eperdi  
sakutoa  
txo !!*

*Eperdidxek  
ezeze ... surre  
ta haqinek be  
edarrak  
jekozak  
horrek!!*

*Eee!! Nor dau hor!  
Ganorabako  
lotsabakook!!*



**Haginhandi:**

**(aginandidxe!)**

*Hagin handiak dituena*

**Hankaoker:**

**(hankaokerra!)**

*Berna okerrak dituena*

**Hankatrebero, hankatrebera:**

**(ankatreberoa!, ankatreberie!)**

*Hankaokerra*

**Iger:**

**(igerra!)**

*Zahartua, tximurtua*

**Itxurabako:**

**(itxurabakoa!, itxurabakue!)**

*Motza*

**Kakanarru:**

**(kakanarrue!)**

*Zehatz txikia*

**Kankailu / Kankaila**

**(kankaillue!, kankaillie!)**

*Handi-handia*

**Kankailuzar:**

**(kankailluzarra!)**

*Handikote traketsa*

**Kazkailu:**

**(kazkaillue!)**

*Txiki-txikia*



**Kontrabista:**  
**(kontrabistie!)**

*Begiokerra*

**Makailu hazur:**  
**(makailluazurre!)**

*Argal-argala*

**Makera zahar:**  
**(makerazarra!)**

*Urdama zikin, andre handia*

**Marihandi:**  
**(mariandidxe!)**

*Oso handia, kankaila*

**Mokordo:**  
**(mokordoa!, mokordue!)**

*Motz-motza*

**Moloton antza:**  
**(moloton antza!)**

*Lodia*

**Mostronko, mostronka:**  
**(mostronkoa!, mostronkie)**

*Itxurabako handi eta desatsegina*

**Musturhandi:**  
**(musturrandidxe!)**

*Mustur handia dauana.*

**Okotzhandi:**  
**(okotzandidxe!)**

*Okotz handiegia dauana*

*Txo, hik dekok  
arpeidxe !!  
hi haz mustur-  
handidxe!! eztenkok !!*

*Ez, hire  
moduen  
atzien  
geratute  
ikusikok !!*



**Pitilnbako**  
**(pitilnbako!)**

*Zakil zehatz txikiduna*

**Figurebako:**  
**(piguebakoa!, figurebakue!)**

*Itxurabakoa*

**Potin:**  
**(potiñe!)**

*Txiki-txikia*

**Prakatz:**  
**(prakatzo!)**

*Galtza handiak dituena*

**Prakote:**  
**(prakote!)**

*Galtza handiak dituena*

**Prakatziki:**  
**(prakatziki!)**

*Galtza txiki-txikiak dituena*

**Surhandi:**  
**(surrandidxe!)**

*Sudur handia dauana*

**Surmakur:**  
**(surmakurre!)**

*Sudur okerra dauana*

**Taloarpegi:**  
**(taloarpegidxe!)**

*Aurpegi handi eta biribila*





**Txepetx:**  
**(txepetxa!)**  
*Txiki-txikia*

**Txepota:**  
**(txepotie!)**  
*Konkorduna*

**Txitxilinbako:**  
**(txitxilinbakue!)**  
*Zakila oso txikia dauana*

**Ziztrin:**  
**(ziztriñe!)**  
*Gauzeztana, txikia*

**Zorri:**  
**(zorridxe!)**  
*Txiki-txikia*

#### 1.5.- ANIMALIEN EZAUGARRIAK ADIERAZTEKO:

**Apo:**  
**(apoa!, apue!)**  
*Txerri, itsusi zikina*

**Astokilo:**  
**(astokiloa!, astokilue!)**  
*Inozo, kirtena*

**Astokume:**  
**(astokumie!)**  
*Astoko, indar handia dauana*



*Hi haz  
astokilla  
kirtena !!*



*Egoadi  
ixilik !!  
saqazar  
itxurebako  
hori !!*

**Azeri:**  
**(azeridxe!)**  
*Pertsona maltzurra*

**Ganbelu:**  
**(ganbelue!)**  
*Ibilera narrasa dauana*

**Hegabera:**  
**(hegaberie!)**  
*Norabide barik galduta dabilena*


**Lupu:**  
**(lupue!)**  
*Azeri, gaiztoa*

**Makera zahar:**  
**(makerazarra!)**  
*Urdama zikin handia*

**Mozolo:**  
**(mozoloa!)**  
*Tonto aurpegia jartzen dauana*

**Otsoaren tipoko:**  
**(otsoan tipokoa!)**  
*Itxura oldarkorra. Emetasun gitxiko andrea.  
Ule asko daukana gorputzean*

**Txarri:**  
**(txarridxe!)**  
*Zikin, lizuna*



*Txo mozolo,  
zeri begire  
zauz?*



*Redios !!!  
Dana jakin  
bierreka  
azeri lupue !!*

**Txarritto:**  
(txarrittoa!, txarrittue!)

*Ugerdo*

**Txepetx:**  
(txepetxa!)

*Txikia*

**Zapo:**  
(zapoa!, zapue!)

*Tranposoa*

**Zorri:**  
(zorridxe!)

*Txiki-txikia*

## 2. IZAERAZKO EZAUGARRIAK

### 2.1.-ADIMEN GITXIKO PERTSONARI:

**Argibako farola:**  
(argibako farolie!)

*Adimenbakoa*

**Artaburu:**  
(artaburuori!, artaburue!)

*Kirtena*

**Astokilo:**  
(astokilloa!, astokillue!)

*Inozoa*



**Astokirten:**  
**(astokirtena!)**

*Inozo astokoa*

**Astokume:**  
**(astokumie!)**

*Indarraz jokutzen dauana*

**Azatronko:**  
**(azatronkue!, azatronkoa!)**

*Tonto handia*

**Babalastro:**  
**(babalastroa!)**

*Ergel, babua*

**Babazto:**  
**(babaztoa!, babaztue!)**

*Gizon zakar zabarra*

**Burubako:**  
**(burubakoa!, burubakue!)**

*Kaikua*

**Burugogor:**  
**(burugogorra!)**

*Kirtena eta tematia*

**Gau:**  
**(gaue!)**

*Argibakoa*

**Inuzente:**  
**(iñuzentie!)**

*Inozo ganorabakoa*



**Kaiku:**

**(kaikue!)**

*Lelo, tentela*

**Kokolo, kokola:**

**(kokoloa!, kokolie!)**

*Gizajoa, maliziarik ez dauana*

**Lapiko:**

**(lapikoori!)**

*Ergela*

**Lelo, lela:**

**(leloa!, lelue!, lelie)**

*Tentelaren parekoa*

**Lerdo, lerda:**

**(lerdoa!, lerdie!)**

*Mamala*

**Mamala:**

**(mamalie!)**

*Emakume lerdo edo tontoa*

**Mozolo:**

**(mozoloa!, mozolue!)**

*Ergel geldoa*

**Papalerdo:**

**(paplerdoa!, pepelerdoa!)**

*Ez dana ezertaz konturatzen*

**Papau:**

**(papaue!)**

*Papalerdo, argibakoa*



**Tentel:**  
**(tentela!)**  
*Memeloa*

**Tontolapiko:**  
**(tontolapikoa!)**  
*Adimen eskasekoa*

**Txatxala:**  
**(txatxalie!)**  
*Berba larregi egiten dauana*

**Txotxolo, txotxola:**  
**(txotxoloa!, txotxolie!)**  
*Tentel txoriburua*

## 2.2. GANORABAKOARI:

**Agure zoro:**  
**(agure zoroa!, zorue!)**  
*Ganorarik bakoa; bere adinari ez dagokiona*

**Buruarin:**  
**(buruariñe!)**  
*Txoriburu, zentzubakoa*

**Burubako:**  
**(burubakoa!, burubakue!)**  
*Txolin, ergela*

**Ganorabako:**  
**(ganorabakoa!, ganorabakue!)**  
*Sustentzibakoa*





**Gatzibako:**  
**(gatzipakoa!, gatzipakue!)**

*Ganorabakoa*

**Gauzeztan hutsa:**  
**(geuzeztanutsa!)**

*Ez dauana ezertarako balio*

**Kankala:**  
**(kankalie!)**

*Ganorabakoa*

**Mamala:**  
**(mamalie!)**

*Adimen gutxiko burubakoa*

*Gauzak modu desegokian egiten dituena*

**Petobako:**  
**(petobakoa!, petobakue!)**

*Ez dana ezertaz arduratzen*

**Sustentzibako:**  
**(sustentzibakoa!, sustentzibakue!)**

*Ardurarik ez dauana*

**Susterbako:**  
**(susterbakoa!, susterbakue!)**

*Ganorabakoa*

**Txairo:**  
**(txairoa!, txairue!)**

*Buruarina*





**Txatxala:**  
**(txatxalie!)**  
*Buruarin berritsua*

**Txolin:**  
**(txoliñe!)**  
*Burubakoa*

**Txontaburu:**  
**(txontaburue!)**  
*Txoriburua*

**Txoriburu:**  
**(txoriburue!)**  
*Buruarina*

**Txotxolo, txotxola:**  
**(txotxoloa!, txotxolie!)**  
*Memelo, buruarina*

**Txitxilinborlas:**  
**(txitxilinborlas!)**  
*Buruarin ardurabakoa*

**Trentinbako:**  
**(trentinbakoa!, trentinbakue!)**  
*Patxadabakoa*

**Zoro:**  
**(zoroa!, zorue!)**  
*Zentzunik gabe jokatzeko dauana*



### 2.3. SEXUAREKIKOAK:

#### **Adar-zorrotz:**

**(adarzorrotza!)**

*Zakila beti prest dauana*

#### **Andrazale:**

**(andrazalie!)**

*Andreen atzetik dabilena*

#### **Atzelari:**

**(atzelaridxe!)**

*Emagizona*

#### **Marimutil:**

**(marimutille!)**

*Mutilen antzera dabilen neska*

#### **Maritxu:**

**(maritxue!)**

*emagizona*

#### **Mariurkulu:**

**(mariurkulue!)**

*Marimutila*

#### **Mosumerke:**

**(mosumerke!)**

*Beti musuka dabilena*

#### **Mutilzahar:**

**(mutilzarra!)**

*Ezkondubako gizon edadetua*

*Uiiiiiiii !!  
ni Maritxu !!  
ni ez naz  
Maritxu, ni  
Florentinito  
naz !!*

*Maritxu !!*



**Narrumerke:**

**(narrumerkie!)**

*Sexurako beti prest dagoena*

**Neskabandera:**

**(neskabanderie!)**

*Beti aurretik dabilen neska*

**Neskazahar:**

**(neskazarra!)**

*Ez kondubako andre edadetua*

**Trebera:**

**(treberie!)**

*Neska desbideratua, okerra*

**Txatxalabero:**

**(txatxalaberue!, txatxalaberoa!)**

*Sexurako prest dagoena*

**Tutubero, eperdibero:**

**(tutuberue!, eperdiberoa!)**

*Sexu bila dabilena*

**Urtentxa:**

**(urtentxie!)**

*Gazte-gaztetatik sexuarekiko joera dauana*

**Usobero:**

**(usoberue!)**

*Sexu-harreman bila dabilena*

**Zoro:**

**(neskazorue!, mutilzoroa!)**

*Sexu-zaletasuna erakusten dauana*



## 2.4. GAIZTOKERIA DESBERDINEN JABE DIRENEI:

### **Ainetru:**

**(aiñetru!)**

*Pertsona okerra, danganinoa*

### **Ama putearen seme:**

**(ama putien semie!)**

*Bere ama putatzat hartzea*

### **Andra txarriaren seme:**

**(ama txarridxen semie!)**

*Bere ama zikintzat hartzea*

### **Barraban:**

**(barrabana!)**

*Barrabasa, gaiztoa*

### **Barrabas:**

**(barrabasa!)**

*Barraban, bihurria*

### **Bihotzgogor:**

**(bihozgogorra!)**

*Sentimendubakoa*

### **Denganino:**

**(denganiñoa!, denganiñue!)**

*Okerra*

### **Drogoso:**

**(drogoso!, drogosue!)**

*Bihurrikerietan dabilen umea*



**Esangaiztoko:**

**(esangaiztoko!, esangaiztokue!)**

*Esandakoa ez dauana egiten*

**Esantzarreko:**

**(esantzarrekoa!, esantzarrekue!)**

*Madarikazioak erabiliz berba egiten dauena*

**Eskuarin:**

**(eskuariñe!)**

*Beti joteko prest dabilena*

**Faltsu:**

**(faltsue!)**

*Egiaz ez dabilena*

**Guzurti:**

**(guzurtidxe!)**

*Guzur asko esaten dituen*

**Harrapatari:**

**(arrapataridxe!)**

*Dena bereganatu gura dabena.*

**Inpernuko deabru:**

**(inpernuko diabru!)**

*Gaiztakeria askoren jabea*

**Judio:**

**(judidxo!, judidxue!)**

*Intentzio txarreko azkarra*

**Kitano, kitana:**

**(kittanoa!, kittanie!)**

*Guzurretan eta engainuetan dabilena*



**Lotsabako:**  
**(lotsabakoa!, lotsabakue!)**  
*Gizalegez hezibakoa*

**Lupu:**  
**(lupue!)**  
*Azpijokoetan dabilena*

**Madarikatu:**  
**(madarikatue!)**  
*Izate txarra dauana*

**Oker :**  
**(okerra!)**  
*Gaiztokeriak egiten dituen*

**Osti:**  
**(gizonostidxe!, umeostidxe!)**  
*Pertsona txarra*

**Saguzar:**  
**(saguzarra!)**  
*Asko jakin eta beti berea egiten dauana*

**Sasiosteko:**  
**(sasiostekoa!, sasiostekue!)**  
*Bere bikotea ez danarekin sortutakoa*

**Sorgin:**  
**(sorgiñe!)**  
*Gaiztokeria askoren jabea*

**Traste txar:**  
**(traste txarra!)**  
*Gaiztoa*



**Txakur:**  
**(txakurre!)**

*Haginka eginda, daukazuna kenduko deutsuna*

**Txakurkume :**  
**(txakurkumie!)**

*Txakurraren kumea*

**Txarri :**  
**(txarridxe!)**

*Besteei beti txarto egiten dabilena*

**Zantar :**  
**(zantarra!)**

*Gauza txarrak egiten dituena*

**Zapo:**  
**(zapo!, zapue!)**

*Azpikerien bidez kalte egiten dauana*

## 2.5.-ALFERRA EDO ARDURARIK HARTZEN EZ DAUANARI:

**Alperdo, alperda:**  
**(alperdoa!, alperdie!)**

*Alfer-alferra*

**Alperrontzi:**  
**(alperrontzidxe!)**

*Beharra ez jakona gustatzen*



*Txo txepote  
nora zoaz  
ikera  
arpegi  
horregaz?*

*Eta zuri ze  
arduretsu zapo  
madarikatuori*





**Gibelandi:**

**(gibelandidxe!)**

*Gauzak egiteko ardura gitxi hartzen dauana*

**Itxi:**

**(itxidxe!)**

*Egitekoa ez dauana unean egiten*

**Nagi:**

**(nagidxe!)**

*Beharra egiten hastea asko kostatzen jakona*

**Potromailuki:**

**(potromailukidxe!)**

*Lanari sekula ez deusona heltzen*

**Txitxilinborlas:**

**(txitxilinborlas!)**

*Gibelandia*

**Zuri:**

**(zuridxe!)**

*Alferra*

**2.6.-BARRITSUARI:**

**Ahobero:**

**(agoberoa!, agoberue!)**

*Madarikazioak esaten dituen*

**Ahozabal:**

**(agozabala!)**

*Pentsatu barik berba egiten dauana*

*Ulenpo,  
alperrontzi,  
itxidxe*

*Nor da berbetan  
dabilen  
marisargento  
hori? Eztot inor  
ikusten!!*



**Erostari:**  
**(erostaridxe!)**  
*Kexaka dabilena*

**Lapiko:**  
**(lapikoa!, lapikue!)**  
*Berba asko egiten dauana*

**Lapikotxiki:**  
**(lapikotxikidxe!)**  
*Ixildu barik dabilena*

**Minluze:**  
**(minluzie!)**  
*Min egiteko pentsatu barik berba egin*

**Nonzebarri:**  
**(nonzebarridxe!)**  
*Danataz enteratu eta kontatzen dauana*

## 2.7. PERTSONA ONEGIA DANEAN:

**Artobero:**  
**(artoberoa!, artoberue!)**  
*Pertsona onegia*

**Esne epel:**  
**(esne epela!)**  
*Inori kalterik ez, baina kokoloa*

**Kokolo, kokola:**  
**(kokoloa!, kokolie!)**  
*Adimen gitxikoa, baina ona*



**Ogimamin:**  
**(ogimamiñe!)**

*Pertsona onegia*

**Osoko:**  
**(osokoa!, osokue!)**

*Dena sinisten dauana*

**Oso-osoko:**  
**(oso-osokoa!, oso-osokue!)**

*Dana sinistu eta malizia barik kontatzen dauana*

## 2.8. INDARRAREN INGURUKOAK:

**Asto:**  
**(astoa!, astue!)**

*Ustez, indarrez jokatzen dauana*

**Astokilo:**  
**(astokiloa!, astokilue!)**

*Izaera eta mugimendu bortitzak dituena*

**Astokume:**  
**(astokumie!)**

*Honelako abereen moduan jokatzen dauana*

**Astopotro:**  
**(astopotroa!, astopotrue!)**

*Astogorri, astokiloa*



**Asto arraio:**  
**(astoarraidxoa!)**

*Astopotroaren antzerakoa*

**Oiloak baino gitxiago jan:**  
**(oilloak baino gitxiago jan!)**

*Gitxi jaten dauana*

**Txitxiak baino indar gitxiago:**  
**(txitxiek baino indar gitxiago!)**

*Indar gitxi dauana*

**Txoriak baino gitxiago jan:**  
**(txoridxe baino gitxiago jan!)**

*Gitxi-gitxi jaten dauana*

## 2.9. BEHE BURUA GEHIAGOTZAT DAUKANARI:

**Eretxi:**  
**(eretxidxe!)**

*Bere burua besteena baino gehiagotzat daukana*

**Harroputz:**  
**(harroputza!)**

*Harrokerietan dabilena*

**Ilustre:**  
**(ilustrie!)**

*Bere ustezko jakituria erakutsi nahian dabilena*

**Marimaistra:**  
**(marimaistrie!)**

*Besteak baino gehiago dakiela uste dauana*



**Marisarjento:**

**(marisarjentoa!)**

*Berak agindu, besteek bete*

**Nabarmen:**

**(nabarmena!)**

*Hausnarketa barik jokatzeko dauana*

**Oilosko:**

**(oilloskoa!, oilloskue!)**

*Bere burua beti agertu nahian dabilen harroa*

**Obispo:**

**(obixpoa!, obixpue!)**

*Bere burua gauza handitzat daukana*

**Zorriaberastu, zorribiztu:**

**(zorriaberastue!, zorribiztue!)**

*Aberatsen jokabide barregarria daukana*

**Zorrizto:**

**(zorriztoa!)**

*Txikia izanda, bere burua handitzat daukana*

**2.10. ZIRIKATZAILE, PAZIENTZIBAKO EDO EZIN DANA GELDI EGON**

**Eperterre:**

**(eperterrie!)**

*Ernegetan dabilena*

**Ernegadu:**

**(ernegadue!)**

*Geldi egon ezinik eta kezkatuta dabilena*



**Erre:**  
**(errie!)**  
*Gauzeztan pirria*

**Intzenplatu:**  
**(intzenplatue!)**  
*Arlo baten inguruan larregi ekiten dauana*

**Kakapirri:**  
**(kakapirridxe!)**  
*Motibo barik artega dabilena*

**Kazkailu:**  
**(kazkailue!)**  
*Txiki eta zirina dana*

**Larri:**  
**(larridxe!)**  
*Kakapirriren antzekoa*

**Mizke:**  
**(mizkie!)**  
*Bere adinari ez dagozkion zorakerietan dabilena*

**Parakatx:**  
**(parakatxa!)**  
*Gelditu ezin dana*

**Petral:**  
**(petrala!)**  
*Erretxin, bihurri eta eperterrea*

**Pirri:**  
**(pirridxe!)**  
*Urduria, serenidadebakoa*

*Esantzarreko  
patrozorri, petral  
pirridxe !!*

*ZEZEZER!!!  
Mamala,  
petobako,  
mariurkulu,  
bixertona,  
andra-  
ostidxe!!!*



**Potrozorri:**

**(potrozorridxe!)**

*Besteak urduri ipintzen ondo pasatzen dauana*

**Prakerre:**

**(prakerrie!)**

*Kakapirria*

**Saltsero, saltsera:**

**(saltseroa!, saltzerie!)**

*Endredatzen dabilena, nahastaria*

**Zirin:**

**(ziriñe!)**

*Besteak zirikatzen dabilena*

## 2.11. EUREN JOKABIDEAGATIK NABARMENTZEN DIRANEI:

**Bandera:**

**(banderie!)**

*Bere burua aurrean ipintzen dauana*

**Gangar:**

**(gangarra!)**

*Bere burua agertu nahian dabilena*

**Oiloloka:**

**(oilolokie!)**

*Jokabide zoroa dauana*

**Saltsabandera:**

**(saltsabanderie!)**

*Saltsa guztietan aurretik agertu behar dauana*





## 2.12. BURUGOGORRA DALA ESATEKO:

### **Burugogor:**

**(burugogorra!)**

*Nahiz eta oker egon, bereari ekiten deustona*

### **Kaletras:**

**(kaletras!)**

*Ume egoskorra, terkoa*

### **Temati:**

**(tematidxe!)**

*Bereari eusten deustona*

### **Temoso, temosa:**

**(temosoa!, temosie!)**

*Bere egia baieztatzeko, ekin ta ekin dabilena*

## 2.13. BALIORIK EZ DAUKAN PERTSONARI:

### **Gauzeztan:**

**(geuzeztana!)**

*Txikia izanda, ez dauana ezertarako balio*

### **Gauzeztan hutsa:**

**(geuzeztanutsa!)**

*Ezereza eta baliobakoa*

### **Mokordo:**

**(mokordoa!)**

*Baliorik ez dauana*



## 2.14.- Gauzak egiten arteza ez danari:

### Lorrin:

(lorriñe)

*Oso zikin eta ordena barik egiten dituen*

### Moldanga:

(moldangie!)

*Ez daukana molda askorik*

### Txapuzero:

(txapuzerue!, txapuzeroa!)

*Beharrak gaizki amaitzen dituen*

### Zirimara:

(zirimarie!)

*Zerbait egiterakoan ez du ebatzirik*

## 2.15. BESTE BATZUK:

### Ezsinestu:

(ezsinestue!)

*Ez dauana ezer sinesten*

### Gaztainelokotza baino ligorrago:

(gaztañelokotza baino ligorragoa!)

*Ligor-ligorra eta erantzun txarrekoa*

### Gogaikarri:

(gogaikarridxe!)

*Kantzagarri*



**Gosekil:**

**(gosekile!)**

*Gosez dagoena beti*

**Hikopasa:**

**(ikopasie!)**

*Larrua guztiz tximurtuta daukana*

**Kantzagarri:**

**(kantzagarridxe!)**

*Aspergarria, gogaikarria*

**Ligor:**

**(ligorra!)**

*Jarrera zakarra dauana*

**Mañoso, mañosa:**

**(mañosoa!, mañosie!)**

*Edozergatik negar egiten dauana*

**Mizketu:**

**(mizketue!)**

*Larregikerietan alferrik galdua*

**Mizkiñ:**

**(mizkiñe!)**

*Jaten eskasa dena, mokofina*

**Mozkorti:**

**(mozkortidxe!)**

*Mozkorrak hartzen dituena*

**Panplinoso, panplinoso:**

**(panplinosoa!, panplinosie!)**

*Beti kexaka dabilena*

*Egon ixilik  
eta kendu  
mokoak!!  
Negarti  
mañosa bat  
zara ta !!*



*Ba... ba...  
nik ezta  
gure hori!*

**Salobre:**

**(salobrie!)**

*Jatekoagaz eta edatekoagaz nabarmena dana*

**Sikutero, sikutera:**

**(sikuterue!, sikuterie!)**

*Oso berekoi, diruzalea*

**Trabes:**

**(trabesa!)**

*Alderantziz egiten dituen egitekoak*

**Trabeseko paela:**

**(trabeseko paela)**

*Gauzak oker egiten dituen*

**Txapeloker :**

**(txapelokerra!)**

*Guardia zibila*

**Txingau :**

**(txingaue!)**

*Zorua*

**Umemoko:**

**(umemokoa!, umemokue!)**

*Umea izanda handi nahia dauana*

**Uzkin:**

**(uzkiñe)**

*Jaten eskasa dana*

**Zoritxarreko :**

**(zoritxarrekoa!, zoritxarreku!)**

*Zorionik ez*

